C GALDE-SORTA | HIZKUNTZEN IKAS-IRAKASKUNTZA ARLO EDO IKASGAI EZ LINGUISTIKOETAN

→ Arlo ez linguistikoetako irakasleek betetzekoa (maila, ziklo edo departamentuka)

7.3.1. Arlo edo ikasgaietako hizkuntza

Nolakoa da ikasleen hizkuntza gaitasuna arlo edo ikasgaietan?

Hobetu daiteke? Zertan?

Zer egiten dugu?	*Zer hobetu behar dugu?*

Arlo edo ikasgaiei dagokien irakurmena, idazmena, entzumena, mintzamena eta interakzioa bultzatu eta lantzen dira?

Egin beharko litzateke? Nola? Nondik has gaitezke?

Zer egiten dugu?	*Zer hobetu behar dugu?*

Arlo edo ikasgaiei dagokien irakurmena, idazmena, entzumena, mintzamena eta interakzioa ebaluatzen dira? Era bateratuan ebaluatzen dira arlo edo ikasgai guztietan?

Ebaluatu beharko lirateke? Era bateratuan? Nondik has gaitezke?

Zer egiten dugu?	*Zer hobetu behar dugu?*

Laburpenak, eskemak, ikerketa-lanak, ahozko azalpenak eta abar, egiteko prozedura bateratuak jarraitzen ditugu?

Jarraitu beharko genituzke? Nola? Nondik has gaitezke?

Zer egiten dugu?	*Zer hobetu behar dugu?*

Badago Irakurketa Planik ikastetxean?

Egin beharko litzateke? Dagoena egokia da? Zerbait aldatu beharko litzateke?

Zer egiten dugu?	*Zer hobetu behar dugu?*

7.3.2. Prestakuntza

Arlo edo ikasgaietako hizkuntza-irakaskuntza hobetzeko prestakuntzarik behar da ikastetxean?

Zer egiten dugu?	*Zer gehiago egin dezakegu?*